

**Erabakia, 2019ko uztailaren 12koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, Lehenengo taldean lan kontratudun langile gisa sartzeko Eraikuntza, Obra Zibil eta Mantentze Lanetako Goi mailako Teknikaria (Arkitektura eta Obrak) hautaketa prozesuan onartuak eta baztertuak izango diren hautagaien behin betiko zerrenda onartzeko dena.**

Errektorearen 2018ko azaroaren 2ko erabakiaren bidez Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) lan kontratudun langile gisa sartzeko hautaketa prozesuak arautzeko oinarri orokorrak eta espezifikoak argitaratzea agindu zen. Hautaketa prozesu horiek Gobernu Kontseiluaren 2016ko uztailaren 7ko eta 2017ko abenduaren 14ko erabakien ondorio dira. Erabaki horretan administrazio eta zerbitzuetako langileentzako 2016rako eta 2017rako lan eskaintza publikorako eskaintza onartu zen.

2019ko urtarrilaren 14an onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda argitaratu zen. Zerrenda horri erreklamazioak egiteko epea bukatu ondoren, erreklamazioak aztertu eta onartutako erreklamazioek eragindako aldaketak egin dira.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

#### **ERABAKI DUT:**

**Lehenengoa.-** Lehenengo taldearen, Eraikuntza, Obra Zibil eta Mantentze Lanetako Goi mailako Teknikaria (Arkitektura eta Obrak) hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzea, txanda askeari, dagokionez. Erabakian baztertuta izateko arrazoiak adierazten dira.

Lehiakideak hautaketa-prozesuetan behin betiko onartzeak lehiakideek prozesu horietan eskatzen diren baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela ulertzea dakar, lehiakideek aurkeztutako eskaeretan egiazkotzat aitortu dituzten eta eman dituzten datuen arabera. Edonola ere, lehiakideen behin betiko onarpena 7.5 eta 10.3 oinarrietan adierazitakoari kalterik egiteke ulertuko da.

**Bigarrena.-** Erabaki hau UPV/EHUko web orrian argitaratzea (<https://www.ehu.eus/eu/web/azp/epe-2016-2017-lan-kontratudun-pertsonala>) baita UPV/EHUko iragarki-oholetan ere.

**Hirugarrena.-** Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, baina aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahalko zaio Gerentzia honi, hilabeteko epean, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko administrazio-azietako epaitegietan, bi hilabeteko epean. Bi epeak erabakia Deialdian jartzen dituen tokietan argitaratu eta biharamunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2019ko uztailaren 12an

Errektoreak 2017ko urtarrilaren 25eko erabaki bidez eskumenak erabiliz (2017ko otsailaren 3ko EHAA)

MIREN LOREA BILBAO ARTECHE  
GERENTEA

